



2001EKO EKAINAREN 28KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bateko ekainaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estenso-ro Eskisabel, Arantxa Zumelaga Agirre, Jon Agirre Garmendia eta Urko Irastortza Aldanondo.

Gorka Lamy Intsausti, Irantzu Amundarain Irizar, Julio Ibañez Urteaga eta Jose Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Jose Antonio Dopazo Martin zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2001eko maiatzaren 31an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen Odelarik.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 1 H.A.KO (EUSKADI ENPARANTZA) B.E.B.E.REN ALDAKETA.-

Lazkaoko Udalak sustatu eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abogatuak idatzita, 1 Hirigintz Areako Lazkaoko Planeamenduko Barne-Eraldakuntzarako Berriazko Egitasmoaren aldaketa puntuala 2001eko ekainaren 1eko Alkatezako Ebazpen bidez izan zen haserakoz onartua. Aldaketa puntual honen helburua 1 Hirigintz Areako eraikinen goi solairuetan merkatal erabilerak posibilitatzea da.

Dokumentua jendaurreko erakustaldian 15 egunetako epean eduki da eta denboraldi horretan alegazio bakar bat aurkeztu da, Jose Angel Larrañaga Sasiañbarrena Jaunak aurkeztutakoa.

Alegazio horren aurrean, dokumentuaren egileak honako txosten hau jaulki du:

“Alegatutako puntuak aztertu eta erantzuten dira korrelatiboki:

1. Abantzearen izapidean ere planteatu zen gaiaren inguruan, erdisotoko solairuetan behe

...///...

...///...

solairuko jardueri lotu gabeko merkatal erabilera independenteak baimendu behar direla hain zuzen, orain fotokopia bat eransten da, dirudienez, Etxeberria Jn.ak 1990. urtean aurkeztutako alegazio bati erantzunez Arau Subsidiarioak idatzi zituzten teknikoek egindako txostenari dagokiona, zein onartu arren, Arau Subsidiarioen Testuan ez zela artikulatu esaten den.

Gai honen inguruan lehenik esan, Udal Osoko Bilkurak, 2001eko maiatzaren 31an egindako batzarraldian, aurkeztutako iradokizunaren inguruan ebatzi eta Abantzea behin-betikoz onartzean, ezestu egin zuela.

Bigarren lekuan, eta alegatzaileak berak onartzen duen bezala, une hartan onartutako alegazioaren edukiak Arau Subsidiarioen Bategindako Testuan ez sartu izana ahazte baten ondorio izan balitz, zehaztugabetasun hori Arau Subsidiarioei eragiten dion prozedimentu bidez zuzendu beharko litzateke, eta ez B.E.B.E.ren aldaketa bidez. Alegatzaileak eskatutakoa onartzea erabakiko balitz, aldaketa honek ez luke behin-betiko onarpena jasoko eskatutako zehaztapenari dagokionean, ez duelako beharrezko den markurik, planeamendu orokorreko zehaztapen bat barne hartzean.

Ondorioz, eta Larrañaga Jn.ak esandakoa, 1990. urtean Arau Subsidiarioen tramitazioan gertatutakoarekin bat datorrela egiaztatu ondoren, eta Udalak egoki kontsideratuz gero, Arauari dagokion prozedimentua hasi beharko litzateke.

2. Alegazioaren 2. atalari dagokionean, esan, ez dela egia inondik inora ere, 1 H.A.ko 3 B.U.ko Birpartzelazio Proiektuan 1 H.A.ko B.E.B.E.ko Ordenantzetako 25. artikuluko aurreikuspena aplikatu dela esanaz egiten den adierazpena, artikulua hau, alegatzaileak ondo dioen bezala, Euskal Herriko Justizi Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietako Salak zuzenbidera ez doitu bezala deklaratu zuelarik.

Jakina den bezala, B.E.B.E. idatzi zenean, hiriginz eraginak sortutako plusbalietan komunitatearen partaidetza zehazten zuena apirilaren 25eko 3/1997 Legea zen, Gipuzkoako Foru Aldundiak behin-betikoz onartu zuenean aldiz, indarrean zegoena apirilaren 20ko 11/1998 Legea zen eta 1 H.A.ko 3 B.U.ko Birpartzelazio Proiektua idazterakoan xedapen hau aplikatu zen.

B.E.B.E.ko ordenantzetako 25. art.a, momentu bakoitzean Eusko Legebiltzarrak gai horren inguruan emandako araudiak automatikoki aldatzen du. Ondorioz, 1 H.A.ko gainontzeko burutze unitateetako dokumentu berdinbanatzaileak idatzi behar direnean, hirigintz eraginak sortutako plusbalietan komunitatearen partaidetza zehazten duen gaian, une horretan indarrean dagoen araudia izango da aplikagarria, eta ondorioz, ez da beharrezkoa ikusten, dokumentu honetan aipatu arauaren aldaketa jasotzea.

Azaldutakoarekin bat, bigarren atal honi dagokionean alegazioa ezestea proposatzen da.”

Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere sei partaideen aldeko botuarekin, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuz, honako erabakiak hartzen ditu:

...///...



...///...

- 1.- Jose Angel Larrañaga Sasianbarrena Jaunak egindako alegazioari ezetza ematea, akordio honen aurrekinetan emandako arrazoiengatik.
- 2.- 1 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren aldaketa puntual honi behin behineko onarpena ematea.
- 3.- Dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honen behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan.

IV.- 16 H.A.KO (ZUBIERREKA INDUSTRIALADEA) B.E.B.E.REN ALDAKETA.-

Lazkaoko Udalak sustatu eta Roberto Garzia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek idatzita Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 16 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren Aldaketa Puntuala 2001eko maiatzaren 29ko Alkatetzako Ebazpen bidez izan zen haserakoz onartua. Aldaketa puntual honen helburua zenbait pabilioien egoera kontsolidatu eta erregularizatu, 1 Burutze Unitatearen solairu artean aprobe-txamendu handiagoa posibilitatu eta Ezarri, S.A. enpresaren finkapena posibilitatzea ditu helburu.

Dokumentua jendaurreko erakustaldian egon da 15 egunetako epean eta denboraldi horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Guzti horren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere sei partaideen aldeko botu-arekin, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- 16 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren aldaketa puntual honi behin behineko onarpena ematea.
- 2.- Dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honen behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan.

V.- 1 H.A.KO 3 B.U.KO (EUSKADIKO KUTXA ETA ALDAMENEO ETXEA) XEHETASUN AZTERKETA.-

Fernando Aguado Aierdi Jaunak, 15.204.401 N.A.N. Zbkia. duenak, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 Hirigintz Areako 3 Burutze Unitateko (Euskadiko Kutxa eta aldameneko etxeak) Jabekideen izenean, J.M. de la Maza Altuna arkitektuak idatzita-ko 1 Hirigintz Areako 3 Burutze Unitateko Xehetasun Azterketa aurkeztu du bere onarpene-rako.

Aurkeztutako Xehetasun Azterketaren aurrean, zera adierazi behar da:

- 1.- Aurkeztutako dokumentuak ez du Planeamendu Erregelamenduko 66. art.an zerrenda-tzen den dokumentazioa jasotzen.
- 2.- 1 H.A.ko Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoak, espreski, eraikuntzako lerroka-durak errekaruntz 5 metroko zorgunea utzi beharko duela libre esaten du, eta aurkeztutako dokumentuan proposatzen den lerroka-durak ez du baldintza hau betetzen.

...///...

...///...

Guzti honen aurrean, eta Hirigintza Batzordearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien botuz, zera erabakitzen du:

1.- Aurkeztutako xehetasun azterketa ezestea.

2.- Udal honek begi honez ikusten duela lerrokadura errekatik hiru metrotara izatea, bi aldameneetako etxeek hala dutelako; eta beraz interesatuei bere laguntza eskeintzeko prest azaltzen dela Ur Zuzendaritzaren aurrean hau lortzera zuzendutako dagozkion izapideak egiteko.

VI.- OROBIONEREN BIRRERAIKUNTZAREN 4. ZERTIFIKAZIOA.-

Orobione etxearen birreraikitze lanen obra zuzendaritza daramaten Juan Jose Garmendia Soria eta Roberto Gartzia Azpiri arkitektoek, lanen laugarren zertifikazioa aurkeztu dute.

Zertifikazio honen zenbatekoa BOST MILIOI BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA BOST MILA EHUN ETA HOGEI (5.995.120,-) pesetatakoa da (36.031,40 €).

Udal arkitekto eta arkitekto teknikoak egindako txostenean adierazten da lur-mugimendua proiektuan aurrikusitakoa baino handiagoa izan denez, betelana ere handiagoa izan dela, zertifikazio honetan 002.05 partidari (betelana lurrekin) 400 m³tako neurketa jasotzen dela proiektuan 90 m³ bakarrik aurrikusten denean. Bestalde, esaten da baita ere, beheko solairuko forjatuaren eta sotoko hormigoizko paretaren arteko bentonitzako junta proiektuan ez zegoela sartuta eta gerora sor daitezkeen hezetan arazoak ekiditzearren beharrezkotzat jo dela lan hau egitea eta ondorioz 004.09 partida, proiektuan 73,00 m. ko neurketa eta 134.758,- pta. ko balioarekin azaltzen zena, zertifikazioan 131,96 m. ko neurketa eta 243.598,- pta. ko balioarekin agertzen zaigula. Eta Orobioneren 4. zertifikazio hau, aipamen hauek eginik, ontzat ematen dute.

Hau honela, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

Une honetan Jose Antonio Dopazo Martin zinegotzia bertaratu da.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Irastortza zinegotziak (EH) alde batetik Udaltzain Agente-Mantenimendu eta Obretako Operari lanpostuaren hautaketa prozesuko xehetasunak jakin nahiko lituzketela eta bestetik kilometroak-etarako oholtza eskari posiblea aurrikusiz, Udalak zer daukan eta berria erotsita ote duen galdetzen du.

Alkateak, oholtzari buruz erantzunez, esaten dio festetako bat ekarri zela, gustatu ezkerro erosteko eta bestela berriz alokairua ordaintzeko. Gehitzen du azken hau egin zela eta uda garaian beste enpresa batekin beste horrenbeste egiteko asmoa dagoela.

Hautaketa prozesuari buruz esaten dio prozesua ekainaren 19an amaitu zela eta fro-

...///...



...///...

ga guztiak gairitu dituen bakarra Xabier Razkin Senar izan dela eta bere aldeko izendapen proposamena egin dagoela. Honez gain, hautaketa prozesuko beste xehetasun batzu ematen ditu. Esaten du izangaietako bat ez zela oso konforme gelditu ariketa fisikoen emaitzekin eta froga hau gairitzeko Epaimahaiak jarritako mailarekin.

Irastortza eta Agirre zinegotziek (EH) esaten dute gauza hoiak aurrez zehaztu eta jarri behar direla garbi.

Alkateak esaten du datorren hileko osoko bilkura aurreratu egingo dela, haserakoz uztailaren 19an izan daitekela edo behar bada 24an.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dularik.

